

## SATXOTA SAGARDOTEGIA

Urte osoan irekita  
Txangurroa labean  
Bisita gidatuak

Santio Erreka Auzoa  
AIA (Oriotik kilometro batera)  
943 83 57 38 - 618 303 584  
www.sidreriasatxota.com

Oriotik oinez etortzeko aukera



## VI • Botilako sagardoa

**BERRIA**  
Asteartea, 2020ko ekainaren 30a

# SAGARDO MOTA BERRI UGARI

Sagarraren bidez egindako gero eta edari mota gehiago ekoizten dira Euskal Herrian eta munduko beste zenbait herritan.

**Ateak**  
zabalik ditugu!!!

**SARASOLA**

ASTEASU

Tel.: 943-69 02 83 617-44 67 29

**Oialume zar**  
sagardotegia

www.oialumezar.com  
Mikel Arozamena 16, ASTIGARRAGA tel. 943 55 29 38

**R.ZABALA**  
SINCE MORE THAN 200 YEARS

GARAGARTZA BASERRIA  
20159 ARUNA, GIPUZKOA,  
BASQUE COUNTRY.

INFO@RZABALA.COM  
PHONE NUMBER  
0034 943 69 07 74  
WWW.RZABALA.COM

EUROPEAN UNION  
PRODUCED  
MADE IN  
EUROPE

DONOSTIA  
SAN SEBASTIAN  
FRANCE  
SPAIN

**I**kerkuntzaren eta berrikuntzaren bidetik, sagardo naturaletik harago, Euskal Herriko sagardogileek gero eta edari mota berri gehiago ekoizten dituzte sagarraren bidez. Izan ere, Euskal Herriko sagarrek gaitasun handia dute sagardo naturalaz gain beste produktu batzuk sortzeko. Munduko beste zenbait herritan ere, zenbait produktu egiten dituzte sagarrarekin. Horrela, gaur egun, sagardo naturala ez ezik, gero eta gehiago ikus daitezke sagarrarekin egindako zukuak, muztioak, sagardo gozoak, sagardo aparduna –cava-ren eta xanpainaren estilokoa–, izotzezko sagardoa, suzko sagardoa eta likoreak ere.

Halaber, zaporetako sagardoak ere egiten dira, laranja, muxika, limoia, anisa eta beste zenbait fruituren zaporeak sagarrarekin



Sagarrarekin egindako edari berri ugari dastatu ahal izan ziren Nazioarteko Sagardo Azokan, Donostiako Kursaal jauregian. SAGARDOAREN LURRALDEA

nahastuta. Freskagarri modukoak izan ohi dira, eta Ameriketako Estatu Batuetan asko kontsumitzen dira. Alemanian eta Austrian, berriz,

apfelwine-a egiten dute sagar garrazekin, eta ardo zuriaren tankerako edari bat da. Apfelwine-k sagar ardo esan nahi du alemanez.

**LARRE-GAIN**  
Tolare - Sagardotegia

Etxera eramango  
dizuegu sagardoa  
**Egin eskaera!**

943-55 58 46  
607-42 91 02

LARRE-GAIN BASERRIA • EREÑOTZU • HERNANI

**OTSYA-ENE**  
TOLARE SAGARDOTEGIA

Sagardoa  
botilan salgai

-Sidras Otsua-Enea S.L.-

Osiñaga auzoa • Tel: 943-55 68 94 • HERNANI

## NAZIOARTEKO SAGARDO AZOKA

Azaroan Donostiako Kursaal Kongresu Jauregian egin zen III. Sagardo Frumaren barruan, Nazioarteko I. Sagardo Azoka antolatua zen. Lehendabiziko eguna jende ororentzat izan zen, eta bigarren eguna profesionalentzat, eta Euskal Herrian hain ezagunak ez diren sagardo motak ezagutzeko aukera izan zen.

Euskal Herriko eta sagardoaren sektorean lan handia egiten duten beste herri batzuetako hogei ekoizle bakoitza gehiagok beren produktuak aurkeztu zituzten. Laurogei produktu baino gehiago, guztira: sagardo naturalak, sagardo apardunak, izotzezko sagardoak, zaporetako sagardoak eta sagardo berriak.

Bi egunetan, bisitariak produktu horiek dastatzeko eta haien ezaugarriak ezagutzeko aukera izan zuten.

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: [www.sagardoarenlurraldea.eu](http://www.sagardoarenlurraldea.eu)